

# Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:  
MADDI SOROA

# Donostiako albuma

Itsasertza, badia, parkeak, ibaia, betiko dendak, pintxoak, kultur jaialdiak... Denetik aurkitu daiteke Donostia maitagarri eta ederrean. Familiarekin nahiz bikotekidearekin, bakarka nahiz taldeka, mila modutara ezagutu daiteke hiria. Hamaika toki ditu bisitatzeko, hamaika aukera ondo jan, ondo pasa edota ondo sentitzeko. Bakoitzak bere erara, nor bere moduan. Zerrenda amaigabea izanik ere, hona hemen Donostiatik ihesi joaten lagunduko diguten irudi batzuk.



Santa Mariakoarekin batera, zabalguneko bizilagunen parrokia izateko asmoz sortu zen Artzal Ona. Berehala, XIX. mendeko zabalguneko erlizentro bilakatu zen. Parrokia eraikitzeke lehiaketa Manuel Etxabek irabazi zuen 1887an, eta Udaletxeak Artzal Onaren plazako lurra ahalbidetu zizkion. Etxaberen proiektua ez zeterren guztiz bat gural hartan indarrean zegoen arkitektura gotikoarekin. Frantziako haizeak ziren nagusi, baina Etxabek Alemaniako katedral gotikoen antzera erakli zuen Artzal Ona, dorrea erdian kokatuz, esaterako. Eraikitze lanak 1889an hasi ziren, eta bederatzai urte behar izan zituzten bukatzeko. Katedrala izateko bokazioa sorreratik izan bazuen ere, 1953ra arte ez zuen lortu malla hori. Egun, hiriguneko erreferente nagusietako bat da, haren orratza Donostiako la edozein lekutatik ikus baitaiteke.







① **Haize Orrazia.** Luis Peña Gan-  
chegui arkitektoak eta Eduardo  
Chillida eskultoreak, burdina forja-  
tua, harria eta itsasoa uztartuz,  
espazio paregabe eta errepikaezina  
sortu zuten duela 30 urte, Ondarre-  
ta hondartzaren ertz batean. Lan  
hura sortu aurretik, badiako mende-  
baldea babesgabea eta basatia zen;  
egun, ordea, Donostiako txokorik  
maitatuenetakoa da bertakoentzat  
nahiz bisitariarentzat. Santa Klara  
irlari so, itsasoaren gazi-gozoak

miresteko erakusleihu bikaina da  
ingurua.

② **Kontxa.** 1845ean, medikuek  
itsasoan bainu hartzeko gomendatu  
zioten Isabel II.a erreginari, larrua-  
zaleko arazoak konpontzeko. Hala,  
modan jarri zituen Kontxako hon-  
dartzeta eta Donostian bera, gorte  
osoa eta hainbat aristokrata uda oro  
gerturatzen hasi baitziren. Hiriak  
izen ona irabazi eta hazteko beharra  
ikusi zuenez, 1864an harresiak bota

zituzten, gaur egun ezagutzen dugun  
erdialdea sortuz. Urumea ibaiari  
lurra kenduz ibai ertzak auzo bihurtu  
eta zerbitzuetara bideratutako  
hirigunea sortu zen. Hori horrela,  
Donostia Europako goi-mailako kla-  
searen helmuga turistiko bihurtu zen  
eta hiriak “Belle Epoque” delakoa  
bizi izan zuen. Maria Cristina erregi-  
nak Miramar jauregian jarri zuen  
gortearen udako egoitza, eta orduan  
sortu ziren luxuzko hotelak, kasino-  
ak, antzokiak...

Ez da donostiarrik Atotxa dorrea ezagutzen ez duenik, Atotxa dorreak  
ezagutzen ez duen donostiarrik ez dagoen bezala. Hiriko estetika puskatuko  
ote zuen, gorabeherak izan ziren bere garaian, baina horiek ahaztuta tinko  
irauten du gaur egun, Egiako jaun nagusia balitz bezala. Nortasun berezia  
ematen dio auzoari, bera baita inguruko eraikinik altuena. Azken  
hamarkadetan izan duen itxura aldaketari esker, auzo aktibo eta populatu  
bilakatu da Egia. Besteak beste, Kristina Eneara joan gaitzke lasaitasun bila,  
Tabakalerara kultur aukera amaigabeak ikusi-entzutera, edota Bukowsky  
tabernara musika onaz gozatzerara.

Parte Zaharraren bihotzean aurkituko dugu Konstituzio Plaza. Bera  
da Donostiako bizitzaren muina, bera baita hiriko festa eta ospaki-  
zun gehientsuenen eszenatokia. Han ikusi genuen azkenekoz Zer  
Dama, Santotomasetako txerria, eta han entzun ere danborren  
burrumba hotsak. Plazako etxaurre koloretsuek, nola balkoi bako-  
itzak duen zenbakiak, garai batean gune hau zezen plaza izan zela  
gogorarazten digute.







3



4

3 **Gros.** Antzina langileen bizitokia zen, baina 1920tik aurrera egun zutik dirauten etxebizitza dotoreak sortu eta auzoak nortasun berezia garatu zuen. Gaur, itsasoari so eta Urgull mendiari diosala eginez aurkituko dugu Rafael Moneoren obra, Groseko altxorra: Kursaal, itsasoaren aurrean kokatutako bi harkaitz bailiran asmatu-rik obra,

arkitektura berriaren ikur eta hiriko kultur ardatz nagusi bilakatua. Handik aurrera eta Monpaseko muturreraño, Zurriolako pasealekuaz gozatzeko aukera eskaintzen du Grosek, Ulia mendia erreferente harturik.

4 **Portua.** 1450ean sortu zen Donostiako lehen portua. Itsas mer-

kataritza balearen eta bakailaoaren arrantzarekin batera hazi zen, eta 1864an hiriko harresiak bota zituzten arte, berau izan zen Donostiako erdigunea. Egund, mota askotako itsasontzien babeslekua da. Baxurako arrantzako koloredun ontziak, kirol-portuko belaontziak, piraguak... Eta Itsas Museoa, noski. ■




## IKUSI ETA IKASI

### Otsaila

**23an, larunbata, 11:00etan**  
Deustoko Bidarte udalategian  
**YENDEREYE ANYZERKIA**

**26an, asteartea, 18:00etan**  
Bagoñeko udalategian  
**IKER DIAZ**  
Ipuin kontalaria

**28an, ostaguna, 18:00etan**  
La Belsan  
**KORRI ETA XALTO**  
**PAILAZOAK**

### Apirila

**5an, larunbata, 11:00etan eta 17:00etan**  
Bilbeko Kasilla Pabiloian  
**PIRRIYX ETA PORROYX**  
"Eskerrik asko!"

### Martxoa

**1ean, larunbata, 11:00etan**  
Deustoko Bidarte udalategian  
**AYIKUS ANYZERKIA**

**4an, asteartea, 18:00etan**  
Bagoñeko udalategian  
**TXATXILIPORDI ANYZERKIA**

**5ean, asteazkena, 18:00etan**  
Bilbeko Zumakela eskolan  
**ANTTON IRUSTA**  
Ipuin kontalaria

**6an, ostaguna, 18:00etan**  
La Belsan  
**LUPE LEKUONA**  
Ipuin kontalaria

**8an, larunbata, 11:00etan**  
Deustoko Bidarte udalategian  
**MAITE FRANKO**








